HIZKUNTZA PROIEKTUAREN JARDUERA-ESPARRUA

HELBURUA

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartzaileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]

Taula betetzeko, oso kontuan hartu behar dira alderdi hauek:

- Helburu zehatzak honelakoak izango dira: neurgarriak, behagarriak eta lortzeko modukoak. Horregatik, zehatz adieraziko dira ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea” edo “ikastea” gisakoak saihestuz; izan ere, zaila da halakoak neurtzea.
- Jarduera bakoitzak helburu bat izango du. Hala ere, helburu batek balio lezake jarduera-esparru bereko beste jarduera baterako edo batzuetarako.
- Jardueraren edo koordinazioaren ardura norbanako batek edo talde batek hartuko du.
- Arduradunak ziurtatuko du jarduera aurreikusita bezala garatzen eta inplementatzen dela, denbora-epeak betetzen direla, baliabideak abiarazi edo lortu direla.
- Jarduera bakoitza garatzeko epea zehaztuko da: jardueraren hasiera-amaierak eta aldizkakotasuna ere bai.
- Ahal delarik, ikastetxeak berak dituen baliabideak planteatuko dira eta aurreikusitako helburuak lortzeko erabiliko dira. Garrantzitsua da baliabide bakoitza argi zehaztea, modu abstraktuan aipatu gabe.
- Ebaluazioan, adierazleak lorpen- zein jarraipen-adierazleak izan daitezke. Zehatz adieraziko dira, ekintza-aditzak erabiliz eta “ulertzea“,“jakitea“,“ikastea” gisako aditzak saihestuz, halakoak neurtzea zaila baita.
- Lorpen-adierazleak jarduera bakoitzaren azken helburuari lotuta daude: zer lortu nahi den adierazten dute.
- Jarraipen-adierazleak prozesuari lotzen zaizkio (bilerak egin dira, galde-sorten erantzunak bildu dira…); eta, beraz, jarduera aurreikusi bezala betetzen ari den ala ez egiaztatzeko balio dute.
- Onartze-mailak adieraziko du adierazlearen gutxiengo betetze-maila (esaterako, “Ahozko hizkuntzari lotutako bi ebaluazio-adierazle egitea” baldin bada gure lorpen-adierazlea, haren onartze-maila honako hau izan daiteke: “Gutxienez, bi ziklotan edo bost ikasgaitan egitea lortuko da”).